

Egundoko abentura itsaso zabalean

Kirolgi belauntziak Cadiz-Habana estropadan parte hartu zuen urtarrilean. Hamaika komeria bizi ondoren, bost tripulatazaileak dagoeneko etxean dira. Oroitzapen eta bizipen harrigarriekin batera, garaipena ere etxeratu dute.

K irolgi belauntzia urtarrilaren 3an abiatu zen Cadizetik. Juan Mari Odriozola patroilari lanetan aritu zen, eta berarekin batera, Eneko Fernandez,

Iñigo Jauregi, Iñigo Sanchez eta Txomin Labarie abiatu ziren. Prestakuntza luzea behar izan da hasieran ametsa besterik ez zena gauzatzeko. Juan Mari Odriozolak dioskunez, *"Habana kutsu bereziko hiria da. Gainera, Donostia eta Habana senidetzeko bidean daude eta ilusio handia geneukan estropada honetan parte hartzeko"*. Hala ere, bost lagun hauen lehendabiziko erronka sostengu ekonomikoa lortzea izan zen: *"Udala ekimena sustatzeko prest agertu zen, baina laguntza hori ez zen nahikoa. Zorionez, Kirolgiren babesa ere izan dugu, eta azkenean bie esker helburua lortu dugu"*.

Estropada bikaina

Tripulatazaileek hainbat kirol probatan parte hartu zuten Cadiz-Habana estropadarako prestatzearen. Estropada hasi eta berehala, Kirolgi belauntziak ekaitza gogorra jasan zuen Kanariak irla aldean. Enbatarik ezkin egin zioten, baina: *"Pasaiako Eskola Nautikoa meteorologiaren berri ematen aritu zitzaigun estropada osoan, eta oso informazio baliagarria izan da"*. Tripulazioak aurreikusitako gabeziak oztopo bat ere gaitzitu behar izan zuten. Eneko Fernandezek lehiaketa utzi behar izan baitzuen, hepatitiak jota. Kutsatzeko arriskurik ez zegoela baieztatu ondoren, gipuzkoarrek estropadari ekin zioten berriro. *"Sailkapenean oso atzean geunden, eta beraz, arriskatzea zen gure aukera bakarra. Hortaz, bide zailena aukeratu genuen, eguraldi txarrarekin jai genuela jakin arren"*, diosku Odriozolak. Hala ere, donostiarrek zortea aldeko izan zuten, eta IRC mailan nagusitu ziren.


Itsasgizonek oroipen ugari ekarri dituzte Donostiara. Kirolgi belauntziaren patroiak dioenez, *"Karibe itsasora Bahametatik iristea liluragarria izan zen. Gainera, Habanako jendeak estropadaren berri zuen, eta oso harrera ona egin zigten parte hartzaile guztioi"*. 32 eguneko lehia eta gero, atsedena behar dute kirolari gipuzkoarrek, baina dagoeneko etorkizuneari pentsatzen hasiak dira. Aurrerantzean, Cadiz-Habana bezalako egitasmoetan parte hartzea da beraien helburua.



Argazkian Cadiz-Habana estropaden parte hartutako kirolgi belauntzia.


Pilota selekzioa EEBBetan

lazko urte amaieran Simon Bolivar txapelketa ospetsuan parte hartu ondoren, Euskal Pilota Selekzioa EEBBetan egon berria da oster. Erakustaldi partidak jokatzeko arituko pilotarien artean Julen Castellanos altzatarra izan da.



Donostiar xakea bikain

Donostiarrak ederki aritu dira joan den astean amaitutako Euskal Xake Ligan. Ohorezko Mailan Groseko Xake Taldea nagusitu zen, Arabako Ruta de Europa taldea atzean utzita. Bestalde, Añorgako taldea txapeladunordea izan da Lehenen Mailan, eta postu horri esker, añorgatarrak Ohorezko Mailan arituko dira aurrerantzean.



Naroa Agirre errekorretatik gertu

Donostiako Atletikoko atletak jauzi bikaina egin zuen pertikan Euskadiko Txapelketan. Naroak lau metroko jauzia egin zuen, beraz, Euskadiko errekorretik zentimetro bakarrera geratu zen.

